



## **ALTZAGAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAK INGURUMENEAN IZANGO DUEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIORAKO ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUA**

### **1. AURREKARIAK**

Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honetan Altzagako alkatearen idazki bat jaso zen 2009ko urriaren 15ean. Idazki horretan alkateak jakinarazten du jendaurrera jarrita dagoela Altzagako Hiri Antolaketako Plan Orokorren Aurrekaria eta, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua (ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duena) kontuan izanik, eskatzen du planari dagokion ingurumen eraginari buruzko aurretiazko informea egiteko; horri begira, hain zuzen ere, memoria eta ingurumeneko baterako ebaluazioa hasteko agiria ere bidali dute idazkiarekin batera.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeko (Euskadiko ingurumenaren babeserako arau orokorrak ematen dituena) 41. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko (ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duena) 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiri antolaketako plan orokorrak eta horien aldaketak, lur hiritarrezina ukitzen dutenak, derrigorrez ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren prozedurara sartuko dira. Era berean, hiri antolaketako plan orokorrak (HAPO) apirilaren 28ko 9/2006 Legearen (zenbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzkoa) aplikazio eremuan sartzen dira. Beraz, lege horretako 9. artikuluan xedatzen dena kontuan izanik, ingurumen iraunkorreko txostenaren irismen, xehetasun maila eta espezifikotasun maila ingurumen organoak zehaztuko ditu erreferentziako dokumentu baten bidez, betiere planak ukitzen dituen herri administrazioak eta herritar interesatuak identifikatu eta kontsultatu ondoren. Erreferentziako dokumentu horretan, gainera, kontuan izango dira kasu bakoitzean ingurumen irizpide estrategikoak eta ingurumen helburu eta iraunkortasun printzipioen adierazleak.

Altzagako Hiri Antolaketako Plan Orokorra behin betiko onartzeko eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio. Hortaz, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 44. artikulua ezarpenez eta maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretuko (Garapen Iraunkorreko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa) 11.2.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honi dagokio plan eta programek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko baterako ebaluazioan kontuan izan behar diren alderdien gaineko ebazpenak ematea eta, horrenbestez, erreferentziako agiriak.

Beraz, aurreko guztia kontuan izanik eta Altzagako Udalak egin duen eskaerari erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi nahi dio udal horri, hiri antolaketako plan orokorre 183/2003 Dekretua osatzera datorren apirilaren 28ko 9/2006 Legean (zenbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzkoa) xedatua aplikatu behar zaiela eta, lege horretako 9. artikulua arabera, zuzendaritza honek hasi dituela jada planak ukitzen dituen herri administrazio eta herritar interesatuei kontsultak egi teko izapideak, eta horiek egin ondoren erreferentziako agiria emango duela eta hori eman ondoren eskatu behar duela udalak ingurumen eraginari buruzko aurretiazko informea.

Hortaz, administrazioei eta erakunde interesatuei kontsultak egin eta erantzunak jasotzeko ezarritako epea igaro ondoren, honako Ebazpena eman da. Horixe da, hain zuzen, apirilaren 28ko 9/2006 Legeko (zenbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzkoa) 9. artikuluan aurreikusten den erreferentziako agiria, eta horrexek erantzuten dio, aldi berean, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko (ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duena) 6. artikuluan xedatzen den aurretiazko kontsultari.



## **2. HAPO-REN PROPOSAMEN NAGUSIAK**

Udalak igorritako agirien arabera, honako hauek dira Altzagako HAPOn idazketan onartu diren irizpide eta helburuak: hiri antolaketa ekainaren 30eko 2/2006 Legeari (lurzoru eta hirigintzari buruzkoa) egokitzea, Altzagako hiriguneak azken urteetan izan dituen garapenak sendotzea, Altzagarate hazteko aukerak mantentzea, Altzagako hirigunean lurzoru hiritargarri berria kalifikatzea barruko hazkunderari erantzuteko, eta lurzoru hiritarrezinari buruzko araudia berrikusi eta berri bat egitea, udaleko landatar erabileren arazo espezifikoak kontuan hartuz.

Agiriak, alabaina, ez du zehaztasun handirik ematen, lehengo irizpideak eta helburuak aplikatu eta betetzeko HAPOn onartuko diren proposamen konkretuei dagokienez, eta elizaren alboko lursailetan dagoen kokapen batean bizitegi multzo bat garatzeko proposamena egitera mugatzen da, nahiz eta argitu lursail hori Altzagaratera sartzeko errepidearen lehen zatian zehar dagoela, H1 HIRIGINTZA EREMUA deituko dela eta 9.930 m<sup>2</sup>-koa dela. Hortik ondorioztatzen denez, hirigintza eremu berri horretan oinplano karratuko (15 x 15 m eta 196 m<sup>2</sup>-ko azalera) sei eraikin jasoko dira, bakoitza sei etxebizitzakoa; beraz, 36 etxebizitza berri guztira. Hala ere, Altzagarate auzorako indarrean dagoen antolaketa jada definituta dauden beste bost etxebizitza ere kontuan izango dira. Agiri horretan kalkulatzen denez, jarduera horien ondorioz herriko biztanleria 96 bizilagunetz handituko da, hau da, guztira 253 biztanlekoa izatera iritsi daiteke.

## **3. EGINDAKO KONTSULTAK**

Apirilaren 28ko 9/2006 Legeko (zenbait plan eta programek ingurumenean ditzuten eraginak ebaluatzeari buruzkoa) 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, planak ukituko dituen honako administrazio eta entitate hauek kontsultatu dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondareko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitateko eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- IHOBE
- Uraren Euskal Agentzia
- Eusko Jaurlaritzako Garraioko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazioa eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Aranzadi Zientzia Elkarte
- Eguzki talde ekologista
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentuko Plangintza eta Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia
- Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Sasieta Mankomunitatea
- Goieki
- Goimen



- Kantauriko Ur Konfederazioa. Landa eta Itsasoko Ingurumeneko Ministerioa
- Legorretako Udala
- Gaintzako Udala
- Baliarraingo Udala
- Itsasondoko Udala
- Aramako Udala
- Zaldibiako Udala
- Enirio-Aralar Mankomunitatea

Erantzunak jasotzeko epea agorturik, ikusi da honako instituzio hauek bidali dituztela beren erantzunak epe barruan: Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza eta Landa eta Itsasoko Ingurumeneko Ministerioaren Kantauriko Ur Konfederazioa. Ebazpen honi erantsita doaz instituzio horiek bidalitako txostenen kopiak.

GFAko **Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak** adierazi du etorkizunean Alzaga-Arama hodi biltzailea egingo dela, beraz udalerrian dauden isurketak bildu eta aipatutako hodi biltzaile horretara eramango dira, jakina, egiten denean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko **Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiak** planteatzen duenez, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioko azterlanak aukeren analisi bat gehitu behar luke eta horretan aztertu, U.01 izeneko eremuko hirigintza aukerak errekaren egungo ibilgua dagoen dagoenean gordetzea. Eta gehitzen du, berebat, aukera hori gaitzetsiko balitz, errekaren bidea zuzendu eta birbideratzeko eraikuntza biguneko konponbideak aplikatu behar direla.

Eusko Jaurlaritzako **Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak**, bestalde, jakitera eman duenez, Alzagako HAPOn ez dute desadostasunik aurkitu.

Eusko Jaurlaritzako **Kultura Ondarearen Zuzendaritzak** bidalitako txostenean, Alzagako udalerraren barruan dauden interes kulturalako elementuak identifikatzen dira, dela ondare historiko-arkitektonikoak direnak dela ondare arkeologikokoak direnak (ustezko zona arkeologikoak). Txostenean, halaber, horietako bakoitzari dagokion babes erregimena zehazten da.

Eusko Jaurlaritzako **Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzaren** txostenean, bestalde, Alzagako udalerrian dauden arriskuak zerrendatzen dira: urak gainezka egitea, suteak eta arrisku sismikoak eta teknologikoak.

**Kantauriko Ur Konfederazioak** uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilearen aipamena egiten du eta ohartarazten, lege horrek 6 hileko epea ematen duela, Alzagako HAPOn ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioari buruzko espedientearen gaineko ebazpena jakitera emateko.

Azkenik, **ENBAK (Euskal Nekazarien Batasuna)** bidalitako txostenean zenbait irizpide ematen dira, erakunde horren ustez udalerriko antolaketan kontuan izan beharko liratekeenak, hala nola laborantzarako balio duten lurra babestea, landatar lurrian etxebizitzak egiteko baimena ematerakoan Lurzoruaren Legea zorrotzaz aplikatzea, nekazaritza arloko ustiapenari lotutako baserriaren arloan dauden etxebizitza premiei erantzutea eta nekazaritza ustiapenei 515/2009 Dekretua aplikatzea.

Erreferentziako Dokumentu hau eman eta gero, beste erakunderen baten erantzuna jasoko balitz, hori Alzagako Udalarari bidaliko zaio aha! denik eta azkarren, Plan Orokorra eta IEB Eren Azterlana idazterakoan kontuan hartzeko.

#### **4. INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK**



HAPOn idazketan erabiliko diren ingurumen irizpideak bateragarriak izango dira EAeko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Programa Markoa (2007-2010) txostenetan eta ekainaren 30eko 2/2006 Legean, lurzoru eta hirigintzari buruzkoan, ezarritakoekin. HAPOk, aldi berean, Altzagako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean planteatzen diren ildo estrategikoak betetzen lagundu behar du, era zuzenean edo zeharka hirigintzako planeamenduarekin zerikusi duten ekintza plan horretako jardueri erantzuteko moduan.

Era beran, HAPOko zehaztapenak diseinatzerakoan kontuan izango dira honako printzipioak, betiere Garapen Iraunkorreko Euskal Estrategiak eta garapenerako hainbat agirik<sup>1</sup> bermatzen duten jite iraunkorreko antolamenduari dagozkion irizpideekin bat etorritz:

- Lehenetsuna emango zaie dentsitate erdiko edo altuko bizitegi multzo trinko eta era askotakoei, erabilera anitz eta konplexutasun handikoei; dentsitate baxu edo oso baxuko bizitegi multzo berriak eta industrialak ekidingo dira, baita etxebizitza isolatu edo elkarri atxikitako etxeen tipologia ere, horiek hiri eredu sakabanatu, barreiatu eta lur, energia eta material asko behar duena eratzen dutelako.
- Dauden hiri bilbeen optimizatze funtzionala eta birmoldaketa sustatuko da, zaharberritze, berregituratze eta berritzearen bidez, edota baztertuta dauden eremuak berreskuratzea, horixe baita lurri eta baliabideei erabilerarik onena emateko eta herriaren memoria historikoa gordetzeko modurik onena.
- Herriko zona trinko berriak egungo herri bilbearen inguruetan eratuko dira eta horietan oinarrituko; hartara, garraio publiko eta oinez eta bizikletan ibiltzeaz mugikortasun iraunkorrerako aukera izango da, eta aldi berean azpiegitura berrien (bideak) premia gutxituko da, baita zerbitzu berriena ere (hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonia, zabor biltzea, eta abar).
- Garapen berriek ingurumenean izango duten eragina arras txikiagotuko da, eta horretarako, ahal denik eta eragin txikiena izango duten kokapenak eta diseinuak aukeratuko dira eta kontuan izango, dela arrisku naturalak dituztenak (uholdeez estali daitezkeen eremuak, aldapa handiko zonak,...) edota arrisku teknologikoak (sute arriskua duten jarduerak, jarioak, eta abar) dituztenak, dela habitat natural interesgarrikoak edo kalitateko paisaiak dituzten zonak. Horrekin guztiarekin aniztasun biologikoa eta habitat naturalak mantenduko dira, hirigintzaren garapenetik gordez, eta/edo espazio naturalak hiri bilbean integratuz.
- Bigarren egoitza estentsiboaren eskaintza eta, oro har, luraren kontsumoan oinarritzen diren ereduaren eskaintza arras txikiagotzea. "Etxebizitza huts"ak okupatzea sustatuko da.
- Baliabideen balantzean eragin negatiboa murriztea; eta murriztea, halaber, oro har eraikuntza lanek (eraikinak, egiturak, hirigintza, eta abar) zein eraikinen erabilerak sortutako hondakinak eta kutsatzaileak, eta zikloak ixt era bideratzea.
- Herriaren habitat jitea sustatzea, etxebizitza funtsezko eskubide gisa bermatuz, eta kokapen baldintza, kopuru, irisgarritasun, kalitate eta prezio egokiak eskainiz.
- Lurraldearen Antolaketako Jarraibideetan, Goierriko Lurraldearen Zatik Planean eta Nekazaritza eta Basogintza Lurraldearen Arloko Planean ezarritako antolaketa kategorien bidez lurzoru hiritarrezinaren antolaketa egokia ezartzea, betiere landatar ingurunea gordetzeko moduan eta bere garapen ekonomikoa, ekosisteman (lehengaiak hornitzea, ingurunea gordetzea...) betetzen duen papera eta ingurunearen eta paisaiaren kalitate baldintza egokiak zaintzeko moduan.

<sup>1</sup> Hiri Antolaketari aplikatzekoak diren iraunkortasun irizpideak. 2003 eta Hirigintza Plangintza Iraunkortasun Irizpideak kontuan izanda idazteko Eskuliburua. 2005. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.



- Mundu guztia sartuko den udalerrria planteatzea, hau da, jatorri, arraza, adin edo sexu arrazoiak tarteko inor diskriminatuko ez dena eta herritarren parte-hartzeko mekanismoak egokituko dituena.

## 5. PLANAREN ARLOAN DAUDEN INGURUMEN INTERES BEREZIKO BALIABIDE ETA ESPAZIOAK ETA BABESTEKO HELBURUAK

Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio bibliografiko eta kartogr afikoa aztertu ondoren eta kontsultatu diren administrazio eta erakundeek eman dituzten erantzunak kontuan hartuz, honako baliabide hauskor eta/edo baliotsuak identifikatu dira Planaren aplikazio eremuan (Altzagako udalerrria). Beraz, ondoren zerrendatuko diren baliabideei arreta berezia eskaini beharko zaizkie HAPO idazterakoan eta bere IEBE Azterketa edo Ingurumen Iraunkorraren Txostenean. Hemen ematen den ingurumen interes bereziko elementuen zerrenda lagungarri gisa eskaintzen da eta IEBE Azterketan osatu behar da udalerrriaren ingurumen inbentario zorrotz baten bidez.

- a) **Balio agrologiko handiko lurrak.** HAPOk zehatuko ditu udalerriko balio agrologiko handiena duten lurrei zor zaien babes, betiere baliabide hori erabiltzen eta mantentzen duten nekazaritza ustiapenak mantentzeko ahaleginduz. Babes hori, gutxienez, Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planak *Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza* kategorian sartzen dituen udalerriko hiru eremuetan aplikatuko da.
- b) **Paisaia.** HAPOk paisaia faktorea sartuko du bere diseinu eta formulazioan, eta kontu handia izango du EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartutako uberka agerietako (Baliarraingo eta Zaldibiako uberka ageriak) jarduera eta antolaketan. Horren harira, komenigarritzat jotzen da antolaketak Aldaketa Gutxi jasandako Paisaiak dituzten Eremuak baldintza gainjarria onartzea, Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planaren Aurrekinean definitzen den moduan, gutxienez, katalogatutako uberketan.
- c) **Baso autoktonoak.** Zuhaitz autoktonoko basoak (harizti baso mistoa, pagadi eta haltzadiak). HAPO idazterakoan, hostozabal autoktonoen basoak zehaztuko dira grafikoki eta, Lurraldeko Antolaketa Jarraibideetan ezarritako irizpideekin bat etorritik, *Babes berezi*-ko lurzoru hiritarrezinaren antolaketa kategoriaren barruan baso edo zuhaitz masa onenak zein diren zehazteko aukera aztertuko da. Era osagarrian, baso degradatuko eremuak, sastrakadiak eta lurzoru baztergarriak zehaztu ahal izango dira *Ingurumen hobekuntza* kategorian, eta baso autoktonoak landatzeko bideratuko dira.
- d) **Uraren Domeinu Publikoa** eta bere zorpen zona eta polizia zona, Uraren Legearen testu bateratuak eta bere garapen araudiak arautzen dituenak. HAPOk, halaber, EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoa izango du kontuan. Uren kalitateari dagokionez, HAPOk udalerrian sortutako hondakin uren irtenbide bat aurreikusiko du, betiere onargarria izan daitekeena ingurumenaren aldetik. HAPOren ordenantzak, berebat, arazketa sistema autonomoak instalatzeko derrigortasuna ezarriko du landa inguruneke bizitegi multzoetan eta nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzen diren lekuetan, hala nola hondakin urak behar bezala tratatu beharra, industriako jardueretan.

Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak eta Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritzak U.01 izeneko eremuan dagoen erreka babestu beharrari dagokionez egindako txostenetan (udalerriko hondakin urak bildu eta Altzaga-Arama hodi biltzailera eraman beharrari buruz egin direnetan) ezarritakoa izango du kontuan HAPOk.



- e) **EAEko Korridore Ekologikoen Sarea arintzeko zona.** Altzagako ia udalerrri osoa EAEko Korridore Ekologikoen Sarea arintzeko zonan sartuta dago, hortaz lurzoru hiritarrezinaren antolaketan HAPOk Korridoreen Sarearen agirian kategorio horrentzat definitzen duen papera bereganatu behar du eta kontuan izan behar, agiri horretan ezartzen denez, eremu horiek matrizean egiten diren jarduera antropikoetatik sortzen den ertzeko eragina arintzeko direla. Altzagako kasuan, baldintza horrek udalerriko lur hiritarrezin osoa ukitzen du. Alabaina, korridore izaera horrek eskatzen dituen betebeharrak onargarriak gerta daitezke, baldin eta korridore izaera hori lurzoru hiritarrezinaren arauetara makurtzen bada, eta ez, ohiz egiten den bezala, antolaketako kategorien gaitetik jarri beharreko beste baldintza bat definitu eta aplikatuz.
- f) **Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak.** Plana egiterakoan, udalerrian dauden ondare arkeologikoko eta ondare arkitektonikoko elementuen inbentarioa egingo da eta HAPOko zehaztapenek babes egokia emango diete aipatutako elementuei, betiere Euskal Kultura Ondarearen ekainaren 3ko 7/1990 Legean eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenean ezartzen denarekin bat etorritik.
- g) **Kutsatuta egon litezkeen lurrak.** Kutsatuta egon litezkeen kokapenetan, 1/2005 Legean ezarritako irizpide eta prozedurak aplikatuko dira, lurra kutsadura prebenitzeko eta konpontzeko. Beste horrenbeste egingo da potentzialki lurra kutsatzen duten jarduerak hartu dituzten lurretan, nahiz eta lur potentzialki kutsatuen inbentarioan sartu gabe egon.
- h) **Arrisku naturalak eta beste muga batzuk dituzten zonak.**
- *Aldaparen ezegonkortasunagatik arrisku geoteknikoak dituzten eremuak:* Altzagako herrigunearen zati handi bat baldintza hori betetzen duten kokapenetan dagoenez, zirkunstantzia hori kontuan izan behar da HAPOko jarduerak antolatzerakoan, batez ere etxeak jasotzerakoan eta bestelako eraikuntza lanak egiteko.
  - *Zarata handiko zonak.* Udalerriarren mendebaldeko zonaren zati batean zarata handiak jasotzen dira, N-1 errepedetik datozenak. Faktore hori ere kontuan izan behar da eremu hauek (udalerriko lurzoru hiritarrezinean daude) antolatzerakoan, gehienbat bizitegi erabilerak baimendu behar direnean.

Lurraren eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hirigintzako araudiak babestu behar dituen natura ondarea edo ondare artifizialak zerrendatu eta identifikatzea gomendatzen da eta gero horien katalogoa egitea.

## **6. IEBE AZTERLANAREN EDUKI ETA IRISMENARI EDO INGURUMEN IRAUNKORRARI BURUZKO TXOSTENA**

Uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko (ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duena) eranskinean zehazten da IEBE Azterlanaren edukia. Apirilaren 28ko 9/2006 Legeak (zenbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzkoa) I. eranskinean xedatzen dituen ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenak jasoko dira IEBE Azterketan.

Beraz, Altzagako HAPOri dagokion Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluaziorako Azterketa edo Ingurumen Iraunkortasuneko Txostenak barnean izango ditu aipatutako arauak eskatutako edukia. Horiek jarraian azalduko dugun eskemaren arabera eratuko dira:



## **6.1. Planaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko aintzat hartutako hautabideak**

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio azterketak puntu honetan Hiri Antolaketako Plan Orokor berriaren irizpide eta helburu zehatzak azaldu behar ditu, nola orokorrak hala ingurumenari hertsiki dagozkionak, eta aztertu behar du ea ongi egokitzen zaizkien iraunkortasunerako eta ingurumena babestu eta hobetzeko irizpide edo helburu orokorrei, zehazki, erreferentziako dokumentu honetako 3. eta 4. ataletan aipatutako ei.

Hautabideen azalpenari, haien azterketari eta haietako bakoitzaren barruan eraginak izan ditzaketen jarduketan identifikazioari dagokionez, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioak hau baino ez du egingo oraingoz: aurreko paragrafoan iruzkindutako helburuak lortzeko asmoz, Plan Orokorra lantzerakoan kontuan hartu diren hautabideak laburbilduta eta trinkotuta aurkeztu (hala nola, bestelako kudeaketa jarduketak, kokapenekoak, erabileren eta baliabideen esleipenekoak, eta izan daitezkeen esku-hartzeokoak, edota bestelako ekarpenak eta banaketa espazialak, helburu horien arabera), txosten honetako 5.4 atalean zehaztutakoaren arabera egin behar den azterketa xeheagoaren arabera, betiere.

## **6.2. Beste Plan edo programa batzuekiko elkarreraginaren analisia**

Hiri Antolaketako Plan Orokorra antolatutako eremuan edo alderdietan eragina duten planak eta programak identifikatuko dira. Hiri Antolaketako Plan Orokorra horiekin bateragarria den aztertu eta arrazoituko da. Plan eta programa hauek bederen hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolaketako Jarraibideak (LAJ).
- Beasain-Zumarragako (Goierrri) Jardute Eremuko Lurraldearen Zatiko Plana
- EAEko Ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Gune Hezeen Lurraldearen Arloko Plana
- Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Plana (behin betiko onartzeko dago).
- Kultura Ondarearen Lurraldearen Arloko Plana (Aurrerapena).
- EAEko Uholdeei Aurre egiteko Plan Orokorra eta hori berrikusteko agiriak.
- EAEko Baso Plangintza (1994-2030).
- EAEko Biodibertsitateko Estrategia (2009-2014).
- EAEko Landa Garapen Iraunkorreko programa (2007-2013).
- Altzagako Tokiko Agenda 21en Ekintza Plana (HAPO ildo estrategikoetan ezarritako helburuetara egokitzea eta HAPOko zehaztapenek Tokiko Ekintza Planean definitutako ekintzak lortzeko ekarpenak egitea).
- EAEko Korridore Ekologikoen Sarea.
- EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.
- EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002-2020). Ingurumenaren Esparru Programa (2007-2010).
- Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana (2008-2012).
- Goierrri eskualdeko airearen kalitatetarako Ekintza Plana.
- Gipuzkoako Uraren Erabilera Iraunkorrerako Arauak
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (Aurrerapena)
- Gipuzkoako Hondakin Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana.



### 6.3. Planari dagokion eremuaren ingurumen azterketa, diagnostikoa eta balorazioa

Atal honetan azterketaren eremua Alzaga ko udalerrria izango da batez ere, baina zabalago ere hartuko da, baldin ikuspunturen batetik komeni dela ikusten bada Hiri Antolaketako Plan Orokorren helburuek eta jarduketek ingurumenean izan ditzaketen ondorioak ondo aztertzeko. Nolanahi ere, azterketa eremua hala definitzea eragin duten irizpideak adierazi behar dira.

Udalerrriaren ingurumen ezaugarrien azalpena egin behar da, baita ere Plan Orokorak zuzenean edo zeharka eraginda gerta daitezkeen ingurumen osagaien artapen egoerarena, eta goian aipatutako uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren (ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duena) 3. atalean ezarritako edukia garatu. Alderdi aipagarrien artean hauek aipatuko ditugu:

- Geologia eta geomorfologia, luraren erabilerak eta, kasua balitz, interes geologikoa izan dezaketen guneak baldintza ditzaketen alderdi geoteknikoak barne.
- Hidrologia: udalerriko lur gaineko eta lurrazpiko ur masen ezaugarriak eta egoera. Eta udalerrian dauden ur hartuneak, bereziki gizakien kontsumorako direnak.
- Landaredia. Udalerriko landare eraketen banaketa grafikoki azalduko da eta kartografikoki identifikatu eta kokatuko, baso naturalak, interes komunitarioko lekuak eta, beharko balitz, bestelako landare komunitateak edo kontserbazioaren ikuspuntutik garrantzitsuak izan daitezkeen landareak. Era berean, landare espezie inbaditzaileak dagoen aztertuko da eta tokiko ekosistemetan noraino hedatzen diren.
- Fauna. Legediak —Habitaten Zuzentaraua, Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa, eta abar— interesgarri edo babesgarriztat jotzen dituen fauna espezieak azaldu behar dira, Alzagan badaude. Udalerriko toki jakinetan baldin badaude, toki horiei dagozkien puntuak edo laukitxoak grafikoki azalduko dira. Faunarentzako intereseko eremu garrantzitsuenak ere zehaztuko dira.
- Udalerriko interes naturaleko eremuak. Biodibertsitate, lotura ekologiko, paisaia edo atsedeen balioen ikuspuntutik, eta abarregatik garrantzitsuak izan daitezkeen udalerriko eremu naturalak deskribatuko dira. Ildo horretan, EAE osorako diseinatutako sarean sartu edo ez, udalerrirako garrantzia duten korridore ekologikoak (erreka inguruetako baso galeriak mantentzeko, ibarren barrualdeak eta mendi gainak landare korridoreez lotzeko, eta abar) zehaztu ahal izango dira.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurak edo lurra kutsatzen duten jarduerak bertan dituztenak. Zerrenda batean eta grafikoki agertu behar dira inbentarioan sartu diren eremuak edo irailaren 30eko 165/2008 Dekretua (lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak hartzen dituzten edo hartu dituzten lurren inbentarioarena) gehitu direnak, edo Azterketa egitean identifikatuak izan direnak, urteetan zehar 1/2005 Legeko (lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko arauak xedatzen dituena) eranskinetan edo 9/2005 Errege Dekretuan (lurra kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lur kutsatuak izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena) aipatzen diren jardueraren bat hartu dutelako.
- Eremu hondatuak, hala nola meatzeak, utziak nahiz lanean ari direnak.
- Arrisku naturalen mendeko eremuak: uholde, akuiferoentzako kalte, arrisku geotektoniko (irristadura, eta abar), eta abar direla eta.
- Paisaia. Ikuspegi zabaleko tokiak, paisaia bereziki baliotsuak, esate baterako EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan jasotakoak.
- Historia eta kultura ondarea: monumentu multzoak, ustezko arkeologia guneak, eta abar.
- Ur hornidurarako azpiegiturak eta baliabideak. Udalerrria aztertu behar da behar adinakoak diren herriko gaur egungo eskariari eta aurrera begira espero den hazkunde demografikoari eta hirigintzako garapen berriei erantzuteko, eragin kuantitatibo negatiborik ez dezaten izan





ur baliabideetan. Ildo horretan, 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua xedatzen duen bezala, eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide hidrikoei eta jabari publiko hidraulikoaren babesari buruzko txostena eskatu behar zaio Administrazio hidraulikoari (EAEko 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa). Txosten hori kontuan hartu beharko da IEBE Azterketan.

Gerora, 183/2003 Dekretuko eranskinean 3.6 paragrafoan aurreikusitako oaren arabera, ingurumen unitate homogeneoak definitu ahal izango dira, eta beren ingurumen kalitatea balioztatu eta erabilera ahalmena definituko da.

Azkenik, identifikatu eta azaldu egin behar dira hiri metabolismoa eta udalerriko biztanleen bizi kalitatea baldintzatzen dituzten ingurumen eta gizarteko eragileak, hala nola uraren zikloa, hondakinen ekoizpena eta kudeaketa, mugikortasunaren askotariko alderdiak, etxebizitzaren beharra, ekonomia jarduerak, eta abar.

#### **6.4.- Teknikoki arrazoizkoak diren hautabideak ingurumen aldetik aztertzea. Erabakitako irtenbidea arrazoitzea**

Planaren helburuak lortzeko aintzakotzat hartzen diren hautabideak ingurumenaren ikuspegitik aztertu behar dira, eta nahitaez sartu behar da "0 hautabidea" edo egungo plangintza mantentzekoa.

Hiri Antolaketakoko Plan Orokorra idazterakoan kontuan hartzen diren hautabideen azterketa konparatiboa egin behar da, haien eragin nagusiak oinarritzat hartuta, hau da, aurreko atalean azaldutako ingurunearen osagaietatik modu esanguratsuagoan eta bereizgarriagoan erasandakoen gainean sortzen dituzten eraginak.

Altzagako Udalak Zuzendaritza honetara igorri duen dokumentuko helburu eta erabakitako jarduerak kontuan izanik, premiazkoztat jotzen da hautabideen ingurumen azterketak, besterik ez bada ere, aukera guztien azterketa eta balorazioa gehitzea, HAPO indarrean egongo den aldirako planteatu nahi diren bizitegi garapenen neurri, tipologia eta kokapenari dagokionez. Zehazki, etxebizitzaren kopuru, tipologia eta kokapenaren gaineko azken erabakia honako azterketa hauek eginda gero hartu beharko litzateke:

- a) **Extebizitzaren kopuruaren eta tipologiaren azterketa eta justifikazioa.** Horrek, lehenbizi, aukera desberdinak izango ditu kontuan, HAPO indarrean dagoen aldira eraikiko den etxebizitza kopuruari eta biztanleriaren hazkundeari atxikitako eraginei (trafikoa, hondakinak, hondakin urak, ur kontsumoa, eta abar) dagokienez, eta ondoren, antzemandako premiei erantzuteko erabiliko den etxebizitza motak aztertuko ditu, honako alderdiak baloratuz: lur kontsumoa eta etxebizitzek izango duten eragingarritasuna bestelako kontsumoei dagokienez (ura, energia).
- b) **Hirigintza garapen berrien kokapen aukerak:** Etxebizitza kopuru eta tipologiari buruzko hautabideak aztertu ondoren, horien balizko kokapenen azterketa egingo da, de la hirigunearen funtzionaltasun eta konfigurazioaren ikuspuntutik begiraturik, dela aztertu diren hautabideek ukitutako lurzoruen kalitate eta hauskortasuna baloratuz. Hala, hautatutako aukerak ingurumen kalitate handieneko osagaietan ahalik eta eragin gutxi izan beharko du. Bestalde, kokapenak aztertzeko, garapen berriei traba egin diezaieketen alderdiak kontuan hartu behar dira; esaterako, uholdeak izateko arriskua, zarata maila, lur kutsatuak egotea, akuiferoen ahulezia edota airearen kalitatea.

Aukeren azterketan oinarrituta, irizpide hauen arabera emango zaie lehentasuna:

- a) Hiritartutako eremuak birsortzearen eta betetzearen alde egitea, eta hiritartu gabe dauden lurretan egotea, nahiz eta hiri bilbetik gertu egon.



- b) Lur gutxien erabiltzea eta, dena den, udalerako edo goragoko plangintzak (Goierriko Lurraldearen Zatikoa Plana) eskualderako antzemandako beharrei erantzuteko behar dena baino gehiago ez erabiltzea.
- c) Altzagako udalerriko ingurumen balioei ahalik eta eragin gutxien egitea eta balio horien babesa, natur arriskuen murrizketa eta biztanleen bizi kalitate ona uztartzea lortzea.

Azkenik, bai irizpide sozialez (hazkunde endogenoaren erantzuteko benetako etxebizitza premia) bai ingurumenekoez justifikatutako proposamena egingo da; horrek, bestalde, koherentzia bat gorde behar du txosten honetako 3. eta 4. ataletan zehaztu diren irizpide eta helburuekin.

Horrez gain, proposatutako jarduketaren ondorioz, bide sistema berrantolatzeke beharra suertatuz gero, ezinbestekoa izango da trazadura eta gauzatu be harreko zatiak egiteko dauden hautabideak aztertzea.

### **6.5.- HAPOko jarduerak sortutako eraginak identifikatzea eta balioztatzea**

HAPOko jarduerak ingurumeneko elementuen gainean dituzten ingurumen eraginak identifikatu eta balioztatuko dira. Identifikatze eta balioztatze horiek ez dira mugatuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak zuzenean dituen eraginetara (esate baterako, hirigintzaren ondorioz zoru artifizialtzea), eta eragin hauek ere kontuan hartuko dira:

- Proposatutako antolaketa ingurumenean ze harka izandako eraginak (esate baterako: etxebizitza edo jarduera ekonomikoaren kopurua gehitzearen ondoriozko hondakin uren gehikuntza).
- Erabilera eta jarduerak arautzetik ondorioztatutako eraginak (esate baterako, animalia granjak —HAPOk baimentzen ditu era horretako jarduerak zona jakin batean—) ezartzearen ondorioz sor daitezkeen usain txarrek eragindako arazoak.

Iragarri eta identifikatze aldera, goian aipatutako 183/2003 Dekretuaren eranskineko 5.2.2. atalean zehaztutakoaren arabera egituratu ahal izango dira ingurumen eraginak.

Identifikatutako ingurumen eragin bakoitzaren ezaugarriak zehaztu eta tamainan nahiz intentsitatean baloratzeko garaian, irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuko (ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzkoa) I. eranskinean agertzen den terminologia erabili behar da. Horretarako, lehenbizi, kaltea egoki deskribatuko duten adierazleak definitu behar dira (adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzailak, kuantifikagarriak eta identifikaerazak), eta, ingurumen kalitatearen helburuak xedetzat hartuta, eraginari dagozkion gutxieneko muga onargarriak finkatu behar dira, indarrean dagoen legeria erreferentziatzen hartuta, baita kasuan kasuko organo eskudunen jarraibideak ere.

Hautemandako eraginaren garrantzia zehazteko, bete egingo da ze nbait plan eta programek ingurumenean dituzten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak II. eranskinean aurreikusitakoa, eta Proiektuen ingurumen eragina ebaluatzeko Legearen Testu Bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak III. eranskinean xedatutakoa.

### **6.6.- Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak hartzeko proposamena**

Hiri Antolaketa Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketaren eta arauen ondorioz ingurumenean izan litezkeen eraginak murrizteko edo konpentsatzeko beharrezkoak diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak hartu behar dira, 183/2003 Dekretuko eranskinean, 6. atalean, adierazitakoa betez. Neurriei buruzko proposamenak honako elementu hauek eduki behar ditu: zonakapen bat —bai lurzoru hiritarrean, bai hiritarrezinean—, eraikinak eta azpiegiturak kokatzeko, zonek erabilerak hartzeko duten gaitasunaren arabera; eraikuntza iraunkorreko irizpide batzuk; eta ingurumen baldintzak, jarduera mota desberdinak garatzeko. Irizpide eta baldintza horiek Hiri



Antolaketako Plan Orokorren ordenantzan jaso beharko dira. Lanak egiten diren bitartean ingurumenaren gainean ahalik eta eraginik txikiena izateko neurriak ere jaso beharko dira.

Hiri Antolaketako Plan Orokorra neurri zuzentzaileak jasoko ditu hasierako onarpen-agirian adierazita dagoen jarduketa eta zehaztaperen bakoitzeko (sistema orokorrak, lurzoru hiritar, hiritargai eta hiritarrezinetako alorrak, alderdiak edo unitateak, eta abar), dela zuzenean, dela garapen plangintzan (plan bereziak, alorreko planak, hiritartzeko proiektuak, eta abar) jarduketa eta zehaztaperen horien garrantzia berariaz aipatuta. Neurri zuzentzaileen bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira, besteak beste:

Eraginik esanguratsuenen gertagarritasuna murriztea (183/2003 Dekretuko Eranskineko 6.3.1. paragrafoa):

Horretarako, neurri hauek hartuko dira:

- Intereseko landaredian eta faunarengan eraginik ez izatea edo ahalik eta eragin txikiena izatea, eta espezie exotikoen hedapena saihestea.
- Hiri Antolaketako Plan Orokorrean jasotako jarduketaren ondorioz hondatutako edo erasandako alderdietako paisaia lehengoraztea.
- Arrisku geologikoak dituzten eremuak mugatzea.
- Eraikin berrietan, ura eta energiaren kontsumoak aurrezteko sistemak ezartzea.
- Lurzoru kutsatuei buruzko 1/2005 Legeak xedatutako irizpide eta prozedurak ezartzea.
- Zarataren eragina kontuan hartzea (pantailak, zarataren aurkako antolaketak, eta abar), arazo hori sor daitekeen alderdietan. Ildo horretan, zarata mailak handiak izanez gero, eremuak hiritartzen direnean kontuan hartuko da, alorrean aurreikusita dauden eraikinak antolatzerakoan, eraikin horiek izango duten erabileraren arabera eratzeko aukera; era horretan, gutxien erabiltzen direnak (industria, zerbitzuak) zarataren aurkako pantaila gisa erabili ahal izango dira, zarataren aurrean sentiberagoak direnen babesgarri izan daitezten (etxebizitzak, eskola-ekipamendua, osasun ekipamendua).
- Ur ibilguen naturaltasuna gordetzea edo/eta lehengoraztea (uraren herri jabari gunearen eta ur bazterreko landarediaren gaineko eragina ahalik eta txikiena izatea, ubideratze lanetan ingeniariak biologikoko teknikak erabiltzea, eta abar).
- Hirigintza-agirian jaso behar dira identifikatutako eta inbentariatu tako elementuak eta haien babes erregimena, bai kultur ondareko eraikin, multzo eta elementuen katalogoan, bai haiei buruzko hirigintza araudian.

Lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari buruzko neurriak (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.2. paragrafoa):

Hiri Antolaketako Plan Orokorrean lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa eta aurreikusitako jardueren kokalekua definitzerakoan, eta lurraldearen antolamenduko zatiko nahiz alorreko tresnek (Lurralde Antolaketako Jarraibideak, Tolosaldeko Lurraldearen Zatikoa, lurraldearen alorreko planak) zehaztutako arau, irizpide eta jarraibideak ezartzerakoan, bete beharrekoak izango dira txosten honetako 3. atalean eta Hirigintza plangintzari aplikagarri zaizkion iraunkortasun irizpideak nahiz Hirigintza Plangintza Iraunkortasun Irizpideak kontuan izanda idazteko Esku liburua (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila) argitalpenetan aipatutako ingurumen irizpide estrategikoak.

Lurzoru hiritarrezinaren sailkapenari dagokionez, Lurralde Antolaketako Jarraibideetan eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean (hasiera batean onartua) definitutako irizpideak eta kategoriak ezarriko dira. Era berean, eta Alzaga udalerrian dauden baldintzatzaileak



kontuan izanda, komenigarria da Hiri Antolaketako Plan Orokorrean jasotzea Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean definituta dauden baldintzatzaile gainjarri hauek jasotzea:

- Alderdi higagarriak
- Korridore ekologikoak
- Paisaian alterazio txikia duten alderdiak

Natura-baliabide estrategikoak zaintzeko neurri babesleak (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.3. paragrafoa):

Honako hauek kontuan hartuko dira, besteak beste:

- Lurzorua gordetzeko beharra, lurzoru hiritarrezina babesteko eta zaintzeko, garrantzi berezia duten lursailak udalaren lurzoru ondareari gehituta (erosketa, lagapena, desjabetzea).
- Ordenantzak egitea, lurzoru hiritarrezinean onargarriak diren jarduerak kokatzeko eta garatzeko baldintzak ezartzearen.
- Udalerriko hondakin urak biltzeko eta tratatzeko sistema egokia ezartzea.
- Landa eremuan, ura arazteko sistema autonomoak eskatuko dira, saneamendu sare orokorrari lotzea ezinezkoa denean.
- Hondakin urak isuri ditzaketan jarduerak eta instalazioek bermatu behar dute hondakin urei tratamendu egokia egingo zaiela, eta, horretarako, ur masen kalitatea zaintzeko helburuak erdiesteko beharrezkoak diren arazteko sistemak baliatuko dituzte.
- Ibai inguruak mugatzea eta babes egokia ematea, Ibai eta erreka ertzak antolatzeke Lurraldearen Alorreko Planaren arabera.
- Lurzoru hiritarrezinean, paisaiaren ikuspegitik interesgarriak diren lurzoruak babesteko zonak mugatzea. Paisaian eragin nabarmena sortzen duten eta baimen daitezkeen proiektuetarako, oro har, baimentzeko modukoak direnean, lehengoratzeko programak gehitzeko beharra eskatuko da, dagokien baimena eman ahal izateko.
- Hondatutako guneak (harrobiak, zabortegeiak, hondakindegia, eta abar) lehengoratzeko eta egokitzea sustatuko da.
- Alorrak hiritartzean, zolatu daitezkeen eta iragazkorak ez diren alderdiak mugatuko dira, ahal dela, luraren iragazpen ahalmen naturala mantendu ahal izateko. Oinezkoentzako espazioetan eta ibilgailuetarako bideetan, euriarekiko iragazkorak diren materialak erabiltzea proposatuko da.

Hiri ingurumena hobetzeko neurriak (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.4. paragrafoa):

- Eremuetako espazio publikoetan, eta eraikin berrietako espazio komunean, kontsumo txikiko argiztatze sistemak erabiliko dira, aldi berean argi kutsadura saihesten dutenak.
- Alorrean, eguzki energia biltzerakoan, eraginkortasuna kontuan hartuko da, eraikitzen diren eraikin berrien orientazioak zehazteko eta portaera energetikoa hobetzeko (batez besteko tenperatura altuagoa, berokuntzaren kontsumo txikiagoa, eta abar), eta eguzki-argia aprobetxatzeko (elektrizitatearen kontsumo txikiagoa).
- Ingurunearen ingurumen ezaugarriak kontuan izanda, eta eraikinek zonako paisaiarekin bat egin dezaten eta, horrela, ikus eremuko trabak ekidin daitezzen, zehaztu egingo dira eraikuntza gauzatzeko zenbait baldintza, udalerriko eraikuntzaren eta estetikaren



tipologiarekin bat datozenak (materialak, kolo reak, morfologia, garaierak, bolumenak, eta abar).

- Eraikinetako fatxaden tratamendua desberdina izango da, orientazioaren arabera: itxiagoa eta isolatuagoa iparraldean, eta irekiagoa eta beiraz hornitua hegoaldean.
- Eraikinetan erabiltzen diren eraikuntza materialek isolamendu termiko oso ona eduki beharko dute, eta ahal den iraunkorrenak izango dira; era berean, ahalik eta gutxien kutsatu beharko dute.
- Eraikinen barneko antolaketa egitean, gehien erabiliko diren espazioetan eguzkia eta argi naturala ahal den gehien aprobetxatzeko moduko banaketa egingo da. Barneko antolaketa hori egiteko, egon daitezkeen zarata arazoak kontuan hartuko dira, egokia bada, eta horrela, zarataren aurrean sentikortasun handiagoa izan dezaketen espazioak (logelak, egongelak, eta abar) zarata sortzen den guneeetatik ahalik eta urrutien kokatuko dira.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoaren arabera, eguzki-atzitzailleak eta metagailuak ipiniko dira ur beroaren edota berokuntzako uraren hornidurarako, eta ura aurrezteko sistemak jartzeko aukera aztertuko da.
- Hiri hondakinak gaika biltzeko leku egokiak aurreikusiko dira.

Neurri konpentsatzaileak (183/2003 Dekretuaren eranskineko 6.3.5. paragrafoa):

- Gaur egun iragazgaitzak diren azalerak naturalizatzea, hiritartu bitartean azalera iragazgaitzak sortzea konpentsatzeko.
- Ibai ibilguetako tartekak naturalizatzea, errekek bideratzeko edo aldatzeko beharrezkoak izan litezkeen lanak konpentsatzeko.
- Hondatutako guneeetan, lehengoratzeko neurriak gauzatzea, HAPOren ondoriozko jarduerak intereseko habitatean duten eragina konpentsatzeko.
- Korridore ekologikoak sortzea, azpiegitura linealak gauzatzean egiten den zatiketa konpentsatzeko.

### **6.7. Planaren eraginak eta ingurumen helburuen betetze maila ikuskatzeko programa**

Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketan proposatutako jarduketei dagokienez, helburua ingurumenaren kalitatea babesteko dela eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketan proposatutako neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak beteko direla bermatzea da.

Horretarako, jarraipena egin behar zaien ingurumeneko aldagaiak, alderdiak edo sistemak identifikatuko dira, eta jarraipena egiteko erabiliko diren adierazleak eta metodologia finkatuko dira (datuak hartzeko estrategiak, mugako edo erreferentziako mailak, maiztasuna, langileak, aurrekontua, aldiak aldiko txostenak, eta abar), identifikatutako eragin esanguratsu bakoitzaren segimendua, eta baita ere proposatutako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen betetze mailaren eta eraginkortasunaren segimendua egiteko moduan.

Horren osagarri, adierazleen multzo bat definituko da, ingurumen helburuen betetze mailaren segimendua egin ahal izateko. Helburuen arabera, Tokiko Agenda 21aren iraunkortasun prozesuaren segimenduan baliatutako iraunkortasun adierazleak (Tokiko Agenda 21aren Adierazleak (IHOBE, 2003) eskuliburuan definituak, eta MUGI 21 tresna informatikoak barnean dituen), Hirigintza Plangintza Iraunkortasun Irizpideak kontuan izanda idazteko Eskuliburua (2005, IHOBE) argitalpenean proposatutakoak, edo Hiri Antolaketako Plan Orokorrean proposatutako ingurumen helburuetara egokitzen diren beste batzuk erabili ahal izango dira. Nolanahi ere, ezartzen diren adierazleak egokitu egingo dira beren segimendua egitea ahalbidetzen duten datuak benetan lortu ahal izateko.



## **6.8. Laburpena**

183/2003 Dekretuaren eranskinean, 8. atalean, xedatutakoaren arabera, laburpena idatzi behar da, informazio zehatza eta jendeak ondo ulertzeko modukoa emango duena, aurreko puntu guztietan bildutako informazioaren berri emateko. Dokumentazio grafikoa eranstea ere gomendatzen da, jendaurrean ikusgai jartzen denerako.

## **6.9. Hautabideen eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena**

Ingurumenaren gaineko eragina ren baterako ebaluazioaren azterketan jasota egongo da 183/2003 Dekretuaren eranskinean, 9. atalean, zehaztutako dokumentazio grafikoa, eta eskaintzen den informazioa ulertu eta espazioan kokatu ahal izateko moduko xehetasun maila izango du.

## **7. INFORMAZIOA EMATEKO ETA KONTSULTA EGITEKO MODUAK**

Apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean ditzuten eraginaren ebaluazioari buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoa betetzeko, informazio eta kontsulta moduei dagokienez, Altzagako Udalak jarduketa hauek egingo ditu:

- a) Eragindako herri administrazioei eta interesa duen publikoari kontsulta egingo die, Planaren lehen agiriaren bitartez eta Planari dagokion Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren Azterketaren bitartez.
- b) Planaren lehen agiria eta dagokion Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren Azterketa jendaurreko informazioan jarriko ditu, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta. Gutxienez 45 eguneko epea emango da agiriak aztertu eta oharrak egiteko.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira eraginpeko herri erakundetzat eta interesa duen publikotzat: erreferentziako agiri hau idazterakoan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsultaturiko administrazioak eta erakundeak (agiri honetako 2. atala), eta Udalak identifika litzakeen herri mailako erakundeak (auzotarren elkarteak, herritarren foroak, eta beste erakunde batzuk).

## **8. INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO AURRETIAZKO TXOSTENA ESKATZEA**

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egiteko prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak 17. artikuluan ezarritakoa betez, irizpide eta irtenbide orokorrei buruzko erabakia hartu aurretik edo, hala badagokio, Hiri Antolaketako Plan Orokorra hasiera batean onartu aurretik, Altzagako Udalak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eskatu behar dio Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Aurretiazko Txostena egin dezan, eta eskaerari erantsi behar dizkio Planaren aurrerapenaren edo lehen agiriaren eskaera, eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterketarena, erreferentziako agiri honetako 3. atalean zehaztutako edukia duena.